


Aguraingo Udala

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK



Sarrera

Azken urteotan Aguraingo Udalaren langileria euskalduntzeko egindako ahaleginen ondorioz, gaur egun hainbat langilek euskaraz lan egiteko gaitasuna daukate; horrela izanda ere, urteetako ohitura dela eta, kasu gehienetan gaztelaniaz lan egiten jarraitzen dute. Eta garbi dago, udala benetan elebiduna izango bada, gure bi hizkuntza ofizialak orekaz eta berdintasunez erabili behar ditugula.

Erabilera da edozein hizkuntzaren etorkizunaren giltzarria: erabileran datza gakoa, eta hor dago koska eta erronka. Izan ere, formalki aitormen bera duten euskara eta gaztelania egiazki maila berean jartzea baita helburua; euskara ere administrazioan gaztelaniaren maila berera eramateko urratsak ematea da aurrez aurre daukagun egitekoa. Urrats eraginkorrak eman behar dira: ez azkarregi, alferrikakoak ez ezik nekagarriak eta porroterako seguruak baino ez baitira (paperean lilura sortu arren Administrazioeko eragileek aurrera ezin eraman baititzakete); ezta ere, ordea, geldoegi, erabilera- eta erabilera bakarrik- denez giltzarria, euskararen ezagutzan inbertitutakoari ez bazaio erabileran errentagarritasun etengabe eta gero eta handiagoa ateratzen, praktikan atzeranzko bidean abiatzeko arriskua baitago. Kontua, beraz, ezagupenetik erabilerarako jauzia pixkanaka egiten joatea da.

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak diotenarekin bat, euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da, eta euskara eta gaztelania dira Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako hizkuntza ofizialak. Hortaz, erkidegoko herritar guztiek badute euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea; herri administrazioek eta bereziki, toki-administrazioek eta haien menpeko erakunde publiko guztiek, berriz, bi hizkuntzok erabiltzea bermatu behar dute administrazioaren barruko zein kanpoko harremanetan. Nolanahi ere, herritarren eskubidea bermatzeak badakar, gehien-gehienetan herri erakundeen erronka eta ahalegin handia, euskararen jakintza ez ezik, herritarren arteko erabilera sustatze aldera, hizkuntza bien ofizialkidetasunari kalterik eragin barik.

Hori dela eta, Aguraingo Udalak Euskararen Erabilera sustatu eta normalizatzeko EBPNa eta Erabilera Plana onartuak eta abian ditu , herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta hizkuntza egoera normalizaturantz abiatzeko beharrezko urratsak emateko.

Ingurumari horretan, ondoko lerroetan proposatuko diren hizkuntza irizpideek helburu dute udalaren jardunbidean euskarak legez izan behar duen tokia bermatzeko hainbat neurri proposatzea, pixkanaka betetzen joan daitezen. Baita langileen jarduera eta eginkizunak argitzeko, eta argi izan dezaten zein egoeratan erabili beharko lukete euskara, eta zein neurritan.

Dokumentu hau irekia da, eta Erabilera Planean aurrera egin ahala osatzen eta egokitzen joango gara.

Udaleko administrazioaren hizkuntza-irizpideak

1. Udalaren komunikazioak – Harreman motak

▣ **Zerbitzu-hizkuntzak, harreman-hizkuntzak eta lan-hizkuntzak**

- Euskara eta gaztelania zerbitzu-hizkuntzak dira herritarrekin, harreman-hizkuntza beste administrazio batzuekin eta lan-hizkuntza udalean bertan.
- Hori betetzeko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukaten udaleko langileei bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna aitortzen zaie, beraz, hizkuntza batean zein bestean erantzungo diote lanari, kasu bakoitzean lan-beharkizunen eta gaitasunen arabera.

▣ **Herritarrekiko harremanak**

Ahozko harremanak

- Oro har, hizkuntza gaitasuna nahikoa duen edozein langilek, herritarrei euskaraz zuzenduko zaie telefonoz zein harrera lekuetan, eta herritarrek hautatzen duten hizkuntzan jarraituko dute elkarrizketarekin. Herritarrei zuzenduriko harrera zerbitzua euskaraz emateko aukera bermatuko da, eta posible den guztietan, ondorengo zerbitzua ere euskaraz ematen saiatuko gara, ahal den neurrian. Herritarrek euskaraz ez dakien langile batengana jotzen badute, langile honek euskaraz aritzeko gaitasuna duen langile batengana bideratuko ditu herritarrak, beti ere euskaraz aritzeko gaitasuna daukan langileak zerbitzu hori euskaraz emateko gaitasuna baldin badauka, horrela ez bada, horretarako gaitasuna daukan langileak menperatzen duen hizkuntzan emango dio erantzuna. Langileek ezin izango diete eskatu herritarrei hizkuntza batean edo bestean aritzeko, funtzio hori euskaraz emateko langilerik bertan baldin badago, behintzat. Beste aukerarik ez badago, langile horrek menperatzen duen hizkuntzan emango du zerbitzua.
- Herritarrak langile elebidunak zein diren errazago antzeman dezan, langileek euskaraz dakitela adierazteko mahairako bereizgarri izango dute bistan. Bereizgarri horiek Euskara Zerbitzuak banatuko ditu langileen artean.
- Hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak (entzungailu automatikoz, telefono bidez edota bozgorailuz eta abarrez emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera horretan

Idatzizko harremanak

- Irizpide orokorra: herritarrei eta erabiltzaileei oro har egiten zaizkien komunikazio guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dira.
- Oinarrizko irizpide gisa, dagokien hizkuntza-eskakizuna lortuta duten langileek eurek egingo dituzte euskarazko agiri, idazki eta bestelakoak. Horretarako, udalak beharrezko tresnak [hiztegi orokor eta terminologikoak, euskarazko programak, zuzentzailea...] eskuetaratu ditzkie, eta trebakuntza ikastaroak antolatuko ditu haien artean.

- Irizpide orokorra: herritarrei eta erabiltzaileei oro har egiten zaizkien komunikazio guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dira.
- Idatzizko komunikazioa-erabilera irizpideak

- Udala igorlea denean:

Oinarrizko irizpide gisa, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta euskararen gainerako lurraldeetan daukaten pertsona fisiko zein juridikoentzako berri-emate eta agiri guztiak; hala ere, interesdun pribatuek beren beregi Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialeko bakarrean jasotzea hautatzen badute, hala egingo da.

Udalak lehenengo komunikazioa euskaraz eta gaztelaniaz igorriko die herritarrei eta beste administrazioei. Horrela eginez gero, bide emango zaio hartzaileari hizkuntzaren hautua egiteko. Hortik aurrera, hartzailearen hizkuntza hautuaren arabera izango da.

Edozein modutan ere, udalak euskara hutsean bidaliko ditu idazkiak kasu hauetan:

- Herritarrak edo beste administrazioak aurretik jakinarazi badu euskarazko komunikazioa lehenesten duela.
- Ohiko harremana euskara hutsezkoa bada; horrelakoetan, euskararen aldeko hautua egin dela ulertuko da.

Horretarako, hizkuntza gaitasuna duten langileak izango dira horiek euskaraz idazteko ardura izango dutenak, eta funtzio horren ardura daukan langileak ez badauka hizkuntza gaitasun nahikorik, itzulpen zerbitzu baten bitartez egingo dira.

- Udala dokumentuaren hartzailea denean, eta erantzuna eman behar duenean:

Orainsu arte administrazioan erabili ditugun testu gehienak gaztelaniaz sortu izan dira, eta gero euskarara itzuli. Euskarazko sorkuntza bultzatzeko, udalak bermatuko du, ahal den neurrian, agiriak euskaraz eta gaztelaniaz sortuko direla, itzulpen-zerbitzuetara sistematikoki jo gabe.

Horrela, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten langileak ahaleginduko dira zabaldu beharreko mezua bi hizkuntzetan sortzen eta ematen. Irizpide hauen arabera jokatuko dute:

Eskabidea euskaraz egiten duten herritarrei euskara hutsean erantzungo zaie; eskabidea gaztelaniaz egiten dutenei gaztelaniaz erantzungo zaie, eta ele bietan egiten dutenei, berriz, bi eletan erantzungo zaie, betiere agiri honetan aipatutako irizpideak aintzat hartuta. Dena dela, herritarrak erantzun hizkuntza zein izango den erabakitzeko gaitasuna izango du.

Horretarako, dagokion langileak hizkuntza gaitasun nahikorik ez daukanean, epeak eta erabilgarri dagoen denborak posible egiten badute, euskaraz zein elebidunez eman beharreko erantzunak itzulpen zerbitzu baten bitartez egingo dira.

- Behin-behineko oharrak, iragarkiak, bandoak... (Iragarki-taula).

Herritarrekiko oinarrizko komunikazioa: jakinarazpenak, bandoak, iragarkiak, oharrak..., elebidunez ipiniko dira Udaleko egoitzaren barruan zein kanpoan, iragarki-taulei arreta berezia eskainiz, hala ere, hartzailearen ezaugarriak kontuan izanda, posible izango da euskara hutsean egitea.

Horretarako, testu edota dokumentu horiek egiteko ardura daukaten langileek, hizkuntza gaitasuna nahikoa dutenean, elebidunez zein euskaraz idatziko dituzte. Testu hauek Hizkuntza Normalkuntzarako Teknikariak zuzenduko ditu kalitatezko euskara erabiltzen dela ziurtatzeko. Eginkizun hau betetzeko langilerik ez balego, itzulpen zerbitzu batek egingo du itzulpena.

▣ Erakunde barruko harremanak

- Euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, arian arian lan hizkuntza izateko bideak jorratuko dira.
- Udaleko batzarretan, partaideek nahi duten hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute. Hala ere, behar izatekotan, organo bakoitzak aztertu eta erabakiko du zein bitarteko baliatu hizkuntza dela-eta bileraren jarduna oztopatu ez dadin, eta kide guztien adierazpenak taxuzko moduan entzun eta jaso daitezten.

▣ Beste administrazio eta erakundeekiko harremanak

- Oinarrizko irizpide gisa, udalak dokumentazio guztia hizkuntza ofizial bietan bidaliko die Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta euskararen gainerako lurraldeetako herri-administrazio eta erakunde ofizialei.
- Hala ere, ahalegina egingo du Aguraingo Udalak administrazioen arteko harremanak euskaraz izan daitezten, solaskidea elebiduna den kasuetan

2. Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak

▣ Testu elebidunak

Herritarrak beren beregi euskararen aldeko aukera ebatzi ezean, oinarri-oinarrizko irizpidea izango dugu udaleko agiri ofizial guztiak ele bietan egitea, batik bat, administratuekiko harremanak sortzen badituzte. Alabaina, testu elebidunak gertatzean, euskarazko testua lehenetsiko dugu gaztelaniazkoaren aldean, honako era hauetan:

- Hitzak elkarren ondoan baldin badatoz, euskarazkoa aurretik edo ginetik jarri. Esate baterako:

**ZIURTAGIRIA
CERTIFICADO**

ZIURTAGIRIA / CERTIFICADO

- Bi hizkuntzetan idatzitako testuak orrialde berean ageri badira, jarri goian euskarazkoa eta behean gaztelaniazkoa.


- Orri bakarrean eta alde banatan idazten bada (euskarazkoa alde batean eta gaztelaniazkoa bestean), sartu gutuna euskarazko aldetik ager dadin gutunazala zabaltzen denean.
- Testuak bi zutabetan idazten direnean, gorde ezkerrekoa euskarazko testuarentzat. Bi hizkuntzetan tamaina berbera erabiltzea da bidezkoena; hala ere, euskarazko testua nabarmendu dezakegu letra-tipo lodiagoa erabilita.

URTEKO JARDUEREN TXOSTENA MEMORIA ANUAL DE ACTIVIDADES

- Orrialdeka idazten badugu, gorde eskuinekoa euskararentzat.

▣ **Seinale eta errotuluak**

Mezuaren ulergarritasuna eragozten ez bada, testua euskara hutsean jarriko da, batik bat, piktograma batez lagundurik ageri bada. Bestela, bi hizkuntzetan jarriko dira, euskarazkoa nabarmenduta.



▣ **Argitalpenak**

- Irizpide orokorra: argitaratzen diren hartzaile jakinik gabeko idazki guztiak ele bietan egongo dira, hala nola, udalaren aisialdi programazioak, agendak, informazio-liburuxkak, esku-orriak, aldizkariak... Hala ere, hartzailearen ezaugarriak kontuan izanda, posible izango da euskara hutsean egitea.

▣ **Iragarpenak, publizitate kanpainak**

- Bi hizkuntzetan egingo dira sail edo zerbitzuetako iragarpen ofizialak eta gainerako publizitate-ekintzak; hala ere, hartzailearen eta hedabidearen ezaugarriak ikusita posible izango da euskara hutsean egitea.
- Kanpainen edukiak eta leloak asmatzerakoan kontuan hartuko dira bi hizkuntza ofizialen ezaugarriak, hau da, hizkuntza bietan testuak ondo funtzionatu behar du. Beraz, kanpainaren mezua bi hizkuntzetan sortuko da.

▣ **Udalaren irudia**

- Ekitaldi publikoetan udalaren ordezkari aritzen diren langile zein ordezkari publikoak aukeratzean, ele bietan ondo moldatzen direnak aukeratu saiatuko da Udala. Horrelakorik ez balego, ekitaldi publikoak elebidunez egingo direla bermatzeko beharrezko urratsak emango dira.
- Udalaren irudia darabilten argitalpen, inprimaki, errotulu, liburuxka eta, oro har, euskarri idatzi nahiz elektronikoko guztiak euskaraz edo ele bietan argitaratu behar dira, baina arreta handiz zainduko da euskarazko testuen kalitatea. Udalaren nortasun korporatiboaren adierazle diren elementu grafiko guztiek Euskararen

Erabilpena Arauzkotzezko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea bete behar dute.

- Gainera, aurretiaz eginda dauden euskarazko testuetako akatsak zuzentzeko ahalegina egingo du udalak, batik bat, ageriko elementuetan eta iraupen luzeko dokumentuetan, esaterako, web-orriko edukiak..

3. Diru-laguntzak

▣ *Diru-laguntzak*

Udalak hizkuntzaren erabilera kontuan hartu behar du laguntzak eta diru-laguntzak esleitzeko –eta, hala badagokio, laguntzen zenbatekoa finkatzeko–, hizkuntzen erabilerak laguntzaren xedean eragina badauka, batik bat, 10/1982 Legearen 25, 26 eta 27. artikuluek jasotzen dituzten jarduera-eremuetan.

- Udalak diruz lagundutako ekitaldi eta jardueretan euskararen erabilera bermatu beharko da, bai ekitaldian bertan, bai publizitatean, aurkezpen, agur eta abarretan, udaleko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta. Nolanahi ere, ekitaldia ele bietan egiten bada, euskarari lehentasuna emango zaio.
- Udalak diruz lagundutako argitalpenetan euskararen erabilera bermatu beharko da.

4. Kontratazioak

▣ *Langileak kontratatzean bete beharreko irizpideak*

Oinarrizko irizpide gisa, Udaleko langile guztiek lanpostuaren araberako hizkuntza-gaitasun egokia izan beharko dute. udalak hizkuntza-gaitasun hori lortzeko bitartekoak eman beharko dizkie behar besteko hizkuntza-gaitasunik ez dutenei (hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa izan ez arren), ikastaro edo besteren bitartez.

Langile eta funtzionarioak hautatzean, aintzat hartuko dira hizkuntza irizpideok:

- **Lanpostu berria sortzen denean**, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizunari eta –hala badagokio– derrigortasun-datari buruzko txostena egingo du Euskara Zerbitzuak. Dena dela, edozein erabaki hartu aurretik, gaiaren inguruko txostena eskatuko zaio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari. HPSren irizpena jakinda, Batzarrak erabakiko du zein hizkuntza eskakizun –eta, hala badagokio, derrigortasun-data– esleituko dion lanpostuari.
- **Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak betetzerakoan:**

Derrigortasun-data igaro bada, hizkuntza eskakizuna nahitaez egiaztatu beharko da hautaketan. Funtzionarioei dagokienez, prestakuntza edo praktika-aldia egonez gero, hizkuntza eskakizuna epealdi horretan egiaztatu ahal izango da.

Derrigortasun data igaro ez bada, langileak derrigortasun eguna arteko epea izango du dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko.

- **Derrigorrezko hizkuntza eskakizunik ezarrita ez duten lanpostuak betetzerakoan**, euskararen jakintza merezimendutzat balioetsiko da, 86/1997 Dekretuaren 31. artikulua jasotzen dituen ehunekoen eredura:

- 1. eta 2. HE % 5etik %10era
- 3. eta 4. HE %11tik %20ra

Euskararen jakintza zenbateko ehunekoa balioetsi behar den haztatzeke, lanpostu berriaren eginkizunak eta harreman-sarea kontuan hartuko dira.

▣ **Zerbitzuen kontratazioa**

Udalak zerbitzuak kontratatzeke hizkuntza irizpideak –eta, hala badagokio– zehapenak zehaztuko ditu, eta kontratazio pleguetan txertatuko. Udalak hizkuntza-irizpideak betetzeke eskatuko die zerbitzuak kudeatzen dituztenei, kontratu-mota zeinahi dela. Hala ere, aipatutako kontratuetako hizkuntza irizpideak zehazteke, kontuan hartuko da eman beharreke zerbitzua zein den eta, batez ere, hizkuntzak erabiltzeke aukerari zelan eragiten dion.

Zerbitzu publikoen kudeaketa eta instalazioen ustiapena

- Turismo bulegoa
- Kirol-instalazioak

Hornikuntza zerbitzuak

- Informatika-ekipoak eta software-a
- Seinaleak

Aholkularitza eta laguntza zerbitzuak

- Bideragarritasun txostenak
- Prestakuntza-ikastaroak

Udalaren ordezeko edo haren bidezke zerbitzuak

- Kirol eta kultur eskaintza
- Garbiketa

Beraz, kontratatzerakoan, Udalaren kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da, eskuarteko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d artikuluan ezarritako neurriak dagozkion ala ez adieraziko duena. Kontratatistak eskaini beharreke zerbitzuak herritarrekiko harremanak badakartza, administrazioari legozkiokeen hizkuntza-beharkizun berberak beteko dira, eta honako neurri hauek hartuko dira:

- a. Zerbitzuaren erabiltzaileek eta, oro har, herritar guztiek zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan jasotzeke eskubidea errespetatuta eman beharko du zerbitzua kontratatistak.
- b. Kontratatistak bi hizkuntzetan eskaini behar ditu herritarrentzako inprimakiak, liburuxkak eta antzeke agiriak.

Aipatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta horren jarraipena egin beharko da, eta baldintza horiek betetzen ez badira eta zerbitzua euskaraz eskaintzeko behar beste bitarteko jartzen ez bada, udalak espedientea bidera dezake kalte-ordainak eskatzeko; gainera, urratzen den hizkuntza-betekizuna funtsezkoa bada, kontratua bertan behera utzi ahal izango da.

Adjudikatzen den kontratuaren zioz, herritarrekiko harreman ohikorik sortzen ez bada ere, herritarrentzako argibideren bat eman behar izatekotan, euskaraz edo ele bietan emango dira, euskarria edozein dela, eta horrela jasoko da kontratazio pleguan.

Udalak zuzenean kontratatu ez arren, zerbitzua udalaren ordezkari ematen bada, zerbitzuok aztertu eta kasuan kasuko neurriak hartuko dira herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

5. Kudeaketa:

Sail bakoitzari bere esparruan eta normalkuntza teknikariari orokorrean dagokie, UdalEan hizkuntza irizpide hauek ezagutu eta betetzen direla bermatzea, beti ere, Erabilera Planak aipatzen duena kontuan hartuz.